


DEUSTU
C MAILA

MUNDAITZ 50



Miguel de Oriol, 1964.

Deskribapena

Garai bateko Estudios Universitarios Técnicos de Guipúzcoa deituak Deustuko Unibertsitatearenak dira gaur egun. Obrak 1963an onartu zituzten, eta egileak, Miguel Oriol arkitektoak, hamar urte geroago gizarte zentro bat eta auditorio bat eraiki zituen. Horretaz gain, multzoa erdiko patio baten inguruan antolatu zuten, eliza zela buru, eta Egoitza, Liburutegia, fakultateko ikasgelak, kirol gunea, bulego dorreak, administrazioa eta Kalkulu Zentroa zeuzkan. Barrutiak zenbait aldaketa izan ditu, eta eliza-kanpandorrea eta ikasgela multzo batzuk mantentzen dira pieza original gisa. 2008an multzoaren goreneko partea eraitsi zuten, baita dorre bat eta ikasgela multzo bat ere, eta altxatzen ari ziren eraikin batek ordezkatu du multzo horretako beste parte bat duela gutxi. Multzoaren balio nagusia izaera eta neurri desberdineko bolumenen antolamenduan datza, era organikoan zertu baita hori, kanpo espazioak edo bolumenen arteko esparruak itxuratuta. Multzoaren ezaugarri dugu, halaber, eraikinen eskala txikia. Bolumenak saileko berezko gorabeheretara egokitzen dira, eta programako zatiekin identifikatutako multzoak itxuratzen dituzte. Eraikinen eskala txikiarekin batera ikuspegi monumentalagoak dauzkagu, elizak eta kanpandorreak eskainiak. Estalkiak isolatuak dira, isurki bakarrekoak eta hiruki formakoak, zirkulazioko klaustroek lotuak. Materialen erabilera nabarmentzen da era berean, adreilu, teila, beira eta zuraren egitura-lengoaia zuzen bat segitu baita horretan.

C mailaren berriazko babes araubidea

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: 1964 osteko eraikinak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: adreiluzko elementuak, estalkiak eta haien egiturak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.